

# noaua

**Foru Aldundiak ez du  
Zubietako autobus  
zerbitzua etengo**

**50 herritar Behobia-  
-Donostia lasterketan**



**Haimar Zubeldia, larunbateko omenaldiaz:**

**“Errekonozimendu handia da”**

**PSU**  
serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

**Kenia**



943 373 613

**IRTEERA MAIATZEAN**  
Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

**INTZA**  
ILEA PA INDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

**MAKILAJE  
IKASTAROAK**  
ABENDUTIK AURRERA!  
**izena eman!**

UDA PASA ETA GERO, ZURE  
AZALA BERPIZTU ETA  
BERRESKURATU GURE  
AURPEGI ETA GORPUTZ  
TRATAMENDU BEREZIEKIN

## LASER DIODO IRAUNKORRA LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:  
(prezioak sesio bakoitzeko)

### EMAKUMEETAN:

Hanka osoak+ oinbularrak+ behatzak 149€ /  
Hanka erdiak+oinbularrak+beatzak 99€  
Izter erdiak 99€ Besoak + hatzak 79€ / Besaurreak + hatzak 69€  
Kokotsa + ezpaina 39€ / Besapeak 39€  
Besapeak + Ingleak (bikini) 79€ / Besapeak + Ingleak (brasildarrak)  
89€ Besapeak + Ingleak (osoa) 99€

### GIZONETAN:

Besapeak 39€ / Ingleak 49€ / Begitartea 19€  
Sorbalda + besaburuak 129€  
Sabelaldea + toraxa 153€  
Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€  
Besoak 99€ / Besaurreak 89€  
Ipurmasailak 79€

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

## Albistea iruditan

## Kamioia trabatua, Arratzainerako bidean



Sagarrez beteta zegoen kamioia. Trabatuta geratu zen Ollokiko borda inguruan. Ibilgailuen joan etorria Zumitza eta Kalezar aldetik bideratu behar izan zen.

Tona handiko trailer bat trabatua geratu zen azaroaren 10ean, hilerri berritik Arratzain alderantz doan bidean, Olloko

kiko borda inguruan. Gertaerak bide hau ixtea ekarri zuen asteburuan. Biharamunerako handik aterarazi zuten, baina

lan horietan zirela, barruan zerraman zama, sagar mordoa, bidera eta mendi magalera erori zen. Hura bildu arte itxita izan

zuten bidea. Bitarte horretan, ibilgailuen joan etorria Zumitza eta Kalezar aldetik bideratu zuten.

## Laburrean

## Akatsak zuzentzen

Aurreko asteko NOAUA!n, TOKIKOM sari banaketaren inguruko artikulua eman genuen argitara. Argazkiak sinatu gabe joan ziren. Ibai Arrieta eta Ion Markel Saez de Urabainenak ziren argazkiak.

## 1974ko kintoen afaria, azaroaren 25ean

Azaroaren 25ean egingo dute, Saizarren. Antolatzaileek dei egiten diete "urteko afari martxosoenean parte hartzera. Animatu eta deitu edo bidali mezua Josuneri (605 73 08 16)".

## 1952an jaiotakoak Gernikara, egun pasa

Abenduaren 3an Usurbildik Gernikara txangoa antolatu dute. Handik gero bazkaritara joango dira Lekeitiora. Izen ematea eta informazio gehiago: 943 360 273 (Javier). Epea: azaroak 24.

# noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

## Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

## Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

## Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

## Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

## Diseinu berria:

Erroitiz S. L.

## Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

## Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

## Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Luken Arkarazo

## Mundu zoriontsu bat

“Gaur egun ditugunekin alde-  
ratuz, uste dut etorkizuneko  
diktadurak oso ezberdinak  
izango direla, eta indarraren  
eta zapalkuntza zuzenaren  
metodoak ordezkaturak izan-  
go direla. Izan ere, iraganeko  
esperientzietaz ikasi ondoren,  
boteredunek ulertuko dute,  
hegemonia denboran zehar  
mantentzeko, zapalduen oni-  
ritzia eta adostasuna lortzea  
ezinbestekoa izango dela.  
Hau, baliabide ezberdinen bi-  
dez egingo da, eta hor izango  
ditugu drogak eta propaganda  
teknika berriak. Azken hauek  
gizakiaren alderdi arrazionala  
alboratu eta gure subkonzien-  
tea kolpatzen saiatuko dira,  
gure sinismen eta sentimen-  
du sakonenetaraino heldu  
eta hauen zeharkako kontrola  
lortuz. Bestetik, fisiologiaren  
gaia ere jorratuko dute. Ho-  
nela, diktadura zuri hauen  
biztanleek euren esklabutza  
egoera normaltasunaren bar-  
nean kokatuko dute. Esklabu  
direla ukatzeaz gain, ez dira  
ohartuko esklabutza egoera  
horretaz maitemundurik dau-  
dela. Hau izango da arriskurik  
handiena, jendea zoriontsu  
izango dela, nolabait, erregi-  
men berri horietan. Zoriontsu  
izango dira, izan beharko ez  
liratekeen egoeretan”.

Hitz hauexek bota zituen,  
“Un mundo feliz” eleberri

ospetsuaren egile izan zen  
Aldous Huxley (1894-1963)  
idazle britaniarrak, 1958. ur-  
tean egin zioten entrebista ba-  
tean. Antzinateko orakuloak  
lez, Surrey eskualdean jaiot-  
ako intelektuala ez zebilen ez,  
errealitatek oso urrun. XXI.  
mendeko bigarren hamarka-  
dako azken txanpan sartzera  
goazen honetan, mendebal-  
deko bloke zabalean bizi ga-  
renok “ondo” bizi garela esan  
ohi dugu, egunero Teleberrie-  
tan entzuten ditugunekin al-  
deratuz behintzat. Kontuan  
izan gabe (edo izanda) gure  
“onuren” zutabeak “haien”  
atsekabeen gainean eraikirik  
daudela. “Jaio, ikas, lan egin,  
bikote bat topatu, etxe bat ero-  
si eta ondorengotza bermatu”  
paradigmaren baitan mugitzen  
gara, norabidea garbi dugu, eta  
ez dugu denborarik, ezta agian  
gogorik ere, zergatik eta zerta-  
rako bizi garen galdetzeko ere,  
norabide aldaezin hori nortzuk  
eta zergatik ezarri zuten gal-  
detzeko. Zoriontasuna para-  
digma horren baitan kokatzen  
dugu, mundua ulertzeko modu  
horren atzean zer dagoen se-  
kula kuestionatu gabe.

Bidean astelehenetik ostira-  
lerako monorutina etengabea,  
“lana inbera zio” maiz ent-  
zuten da, lana bizitzeko edo  
bizi lanerako? Etxera egunero  
nekatuta, piztu telebista, orde-

nagailua eta mobila. Bertan,  
miloika publizista komiteek,  
zure barnean, sistemaren ustez  
“izan beharko zenukeena” zuk  
“izan nahi duzunean” bihurt-  
zen dute. Hori bai, norberari  
“askatasuna” emanaz izan  
nahi duen hura izateko, hortxe  
tranpa, arriskua. Askatsunaren  
zoru zabaleko mugarriak (este-  
reotipoak) jada guztiz ezarriak  
ditugu gure barnean, txiki txi-  
kitatik. Propaganda metodo ber-  
riak, Huxleyek zioen modura,  
teknologiaren iraultzaren bai-  
tan potentziatuak, “Clic-aren  
kultura”, internet. Zure etxean,  
zure gelan, zuk nahi duzulako,  
aske eta zoriontsu. Zoriontsu  
eta preso. Ameslarien ere  
pantalla dugu barrote, egingo  
genukeena ikusteko aukerak,  
hura benetan egiteko ilusio eta  
indarrak deusestatzen dituelarik.  
Asimilatuta, alienatuta, guk  
“nahi” dugulako.

Jarraian asteburua, bizi-  
modua hauspotzeko tresna,  
deskonexioa, benetako aska-  
tasuna. Droga. Futbola, dirua,  
kokaina, apostuak, edertasun  
kanonak, albokoaren erreko-  
nozimenduaren beharra, ez-  
berdinari kritika, eta XXI.men-  
deko gaixotasunak. Diktadura  
berri honen akuiluak denak,  
asteburuetan hartzen dute be-  
netako protagonismoa. Pen-  
tsatzeko eta galderak egiteko  
astirik ez izatea, ez uztea baita

erregimen berriaren lorpenik  
handienetako bat. Sistema  
berri honek ez du polizia  
politiko ezta presondegirako  
funtzionarioirik behar, atxiloa  
bera sartu eta irtetzen da zie-  
gatik, bere borondatez.

Eta okerreana, nahiz eta  
hau guztiaz ohartu, zaila egi-  
ten zaigu bildu eta arazoaren  
planteamendu minimo bat  
egitea. Erregimenak lortu du  
preso izatearen egoera, egoe-  
ra zoriontsu bat izateaz gain,  
esfortzurik eskatzen ez duen  
egoera bat izatea. Aske izate-  
ko saiakerak ordea (zer esa-  
nik ez benetan aske izateak)  
esfortzua eta lana eskatzen  
du. Ez hori bakarrik, nor-  
maltasunetik urruntzera ere  
behartzen zaitu, isolamendu-  
ra, kritikaturak izatera: ostiral  
gaueko kafetxotik, ordu eta  
erdiko bilera batera.

Gazte izateak badu sistema  
honen aurkako nolabaiteko  
antidoto izaera. Errebeldia eta  
errebendikazioa. Nortasuna-  
ren eraikuntza prozesuko  
gorabeheren erradikalismoa.  
Badugu sena, eta baditugu  
espazioak. Asteburu honetan  
Usurbilen bertan, Sutegiko  
aretoan, gaueko 22:30etan, III.  
Gazte Egunaren baitan. Dik-  
tadurako biztanleon kezak  
elkarbatuko dira, kaiolaren le-  
hen pareta (kontzientziarena)  
kolpatzen hasteko asmoz.

Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | **Luken Arkarazo**

### Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

# Txokoaldeko trenbide pasaguneko segurtasuna hobetuko dute 2018an

**A**raba, Bizkaia eta Gipuzkoako trenbide sareko segurtasuna hobetzeko urrats berri bat eman du Eusko Jaurlaritzak. Mundu mailan aitzindaria den teknologia baliatuta, ikusmen artifizialeko teknologia hain zuzen, trenbide pasaguneetako segurtasuna hobetzen hasi da.

“Begicrossing izeneko sistema, Dominion taldeko Begirale Controlling Risk startup-ak diseinatu du, eta ikusmen eta adimen artifizial teknologien erabilera oinarritzen da. Trenbide pasaguneetan egon daitezkeen arazoak goiz antzematea errazten du, igarobideko oztopoak identifikatuz edo trenbide pasaguneko azpiegiturako segurtasun elementuren baten akatsaz jabetuz, besteak beste”. Jaurlaritzatik diotenez, teknologia



Ikusmen artifizialeko teknologiaren bitartez, trenbide pasaguneetako segurtasuna hobetzen hasi da Eusko Jaurlaritza.

## BIDEO-KAMARA SISTEMA

**“Trenbide pasaguneetan egon daitezkeen arazoak goiz antzematea errazten du, igarobideko oztopoak identifikatuz”**

honek denbora errealean lan egiten du eta “jarduketarako denbora eta gerta daitezkeenaren ondorioak asko murrizten dira”.

Vicomtech Fundazioak lagundutako proiektu berri hau proba moduan hainbat hilabetez indarrean izan dute Basaurin.

Aplikatzeko lehen faseko lanak egin dituzte Bizkaian 6 trenbide pasaguneetan: Amorebietan (2), Asua-Erandion, Berrizen, Muxikan eta Gernikan martxan dute Begicrossing sistema. 2018an bideratuko duten lanon bigarren fasearen baitan aldiz, Gernikara, eta Gipuzkoara hedatuko omen du dute; Errenteria, Irun, Hendai eta Usurbilera. Usurbilen Txokoaldeko pasabidean instalatuko omen dute teknologia berri hau.

“Aurkezturikoa segurtasuna hobetzen laguntzeko diseinutako soluzio teknologikoa da, arriskuak, kalteak edo, kasurik okerrean, istripuak sor ditzaketen egoerak garaiz identifikatzeko balio duena, trena errepideetako ibilgailuekin eta oinezkoekin batera elkarrekin-tzan ari den guneetan”, berri eman du Jaurlaritzak.

# Beste auto istripu bat Txikierrdin

**A**zken urteotan ezbehar bat baino gehiago izan diren inguru berean, beste auto-istripu bat izan zen azaroaren 11n, eguerdi partean. Usurbildik Txikierrdirantz doan N-634 errepide zatian hain zuzen. Ibilgailu bat bidetik irten zen. Lagun bat zaurituta eraman zuten ospitalera, larrialdi zerbitzuek berri emandakoaren arabera. Suhiltzaileak eta Ertzaintza Txikierrdira, Zubietako Aliri zubirantz doan bidetik kudeatu behar izan zuten istripua.



Azaroaren 11ko istripuaren ondorioz, lagun bat zaurituta eraman behar izan zuten ospitalera.

\* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: azaroak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 20.

# Ugaldea industrialguneko sarbideko lanek ahalik eta gutxien eragiteko eskaera

Iragan astetik nabaria da N-634 errepidean, Ugaldea industriagunerako sarbidean egiten ari diren lanen eragina. Obra hauen lehen egunean, azaroaren 6an goizeko lehen orduan auto ilara luzeak sortu ziren sarbide honen inguruan, bi noranzkoetan, errepidean jarritako behin behineko semaforoan eraginez.

Egoera honen aurrean kexa agertu du Udalak Aldundian eta obra zuzendaritzarekin eginiko bileran, lanok usurbildarrei ahalik eta eragin txikiena izatea galdegin diete udal langileek. “Zehazki, bi aukera luzatu dizkiote obra zuzendaritzari: zirkulazio handia egoten den orduetan lanak eteteko, batez ere 8:00etatik 9:00ak artean, edota lanak gauez egitea. Bigarren aukera hori ez du ontzat jo obra zuzendaritzak, eta lehen aukera aztertze konpromisoa hartu dute”, berri eman du Udalak.

## Aurrez eta garaiz abisatzeko eskaera egin zaio Aldundiari

Aurreko astean gertaturikoa ez errepikatzea ere eskatu dute udal langileek, “izan ere, astelehenean (azaroak 6) gertatu ziren erretentzioek eta ezustekoek ezin dutelako berriz gertatu. Zirkulazioan ahalik eta eragin txikiena izan dezan, aurrez abisatzeko eta udaltzainak jakinaren gainean jartzeko es-



Udalak bi aukera luzatu dizkio obra zuzendaritzari: “zirkulazio handia egoten den orduetan lanak eteteko, batez ere 8:00etatik 9:00ak artean, edota lanak gauez egitea. Bigarren aukera hori ez du ontzat jo obra zuzendaritzak, eta lehen aukera aztertze konpromisoa hartu dute”.

## UGALDEAKO LANAK

**Lan horiek lehenbailehen hasteko indarra egin du Udalak. Eta, ondorioz, begi onez ikusten duen obra da. Haatik, Udalak ez zekien noiz eta nola hasiko ziren lan horiek, eta sorpresaz hartu du aurrez ezer esan gabe, lanak hasi izana”**

katu zaie”.

Proiektu honen berri izan bazuen Udalak, baina la-

nok ezustean harrapatu dute. “Usurbilgo Udalak egitasmo horren berri bazuen, izan ere, udal gobernuak sarri eskatu izan dio Diputazioari sarrera hori konpontzeko. Lan horiek lehenbailehen hasteko indarra egin du Udalak. Eta, ondorioz, begi onez ikusten duen obra da. Haatik, Udalak ez zekien noiz eta nola hasiko ziren lan horiek, eta sorpresaz hartu du lanak, aurrez ezer esan gabe, hasi izana”, ohartarazi dute.

## Hirugarren erreila ezarriko dute lan hauekin

Gipuzkoako Foru Aldundia

egiten ari den lanekin Ugaldea industriagunerako sarbidea hobetu nahi da. Errepidean, hirugarren erreil bat egingo dute, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez “industriagunera sartzeko itzaroteko erreila izango dena. Lanek bi hilabete iraungo dutela jakinarazi du Gipuzkoako Bide Azpiegiturako Departamenduak, eta lanen kostua 112.648,35 eurokoa izango da”.

Aspaldiko behar bati erantzuna emango zaio. Udal gobernuak ere sarritan eskatua zion Aldundiari konpon zezala sarbide hau.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL



# Espainiako Auzitegi Gorenak 2014ko San Marko Mankomunitatearen aurrekontuak baliogabetu ditu

Espainiako Auzitegi Gorenak 2014ko San Marko Mankomunitatearen aurrekontuak baliogabetu egin ditu, eta honenbestez arrazoia eman die, aurrekontuon aurka duela 3 urte helegitea aurkeztu zuten udalei, tartean Usurbilgoari. Epaia baloratzeko agerraldia egin zuten iragan astean San Marko Mankomunitateak Donostian duen egoitzan, Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko udaletako ordezkariak. “Epaitegiek arrazoia eman digute”, zioen Luis Intxauspe Hernaniko alkateak.

2014an une hartan atez ateko bilketa indarrean zuten udalerriek aurkezturiko helegiteari eman dio arrazoia Espainiako Auzitegi Gorenak, “Mankomunitatearen irizpideak nabarmen kaltetzen zituztelako eta oraindik ere kaltetzen dituztelako”. Hain zuzen, atez ateko bilketa abian zuten udalerriek, bilketa honen gastuez gain, edukiontzien sistema baliatzen zuten Mankomunitateko gainerako herrien (Donostia, Lasarte, Oreteta...) gastuei ere aurre egin beharrean aurkitu izan dira, “gure tarifa nabarmen zamatuz eta kaltetuz”, zioen Eneritz Arbelaitzek, Oiartzungo udal



Atez ateko bilketa abian zuten udalerriek, bilketa honen gastuez gain, edukiontzien sistema baliatzen zuten Mankomunitateko gainerako herrien gastuei ere aurre egin beharrean aurkitu izan dira.

## XABIER ARREGI

**“Hondakinen kudeaketa jasangarriaren printzipioek gidatu behar dute tasa tarifen ezarpena, ez baita posible %80ko gaikako bilketa egiten dugun herriok beste herriek bezainbeste edo gehiago ordaintzea. Injustua da erabat”**

ordezkariak. Zegokiena baino gehiago ordaindu behar izan dute udalerriok: Pasaia 93.000 euro gehiago, Oiartzunek 60.000 euro gehiago, Lezok 35.000 euro gehiago, Asti-

garragak 30.000 euro gehiago eta Usurbilek 3.000 euro gehiago.

2014ko ez gain, 2015, 2016 eta 2017ko aurrekontuak ere errekurrituak dituzte udalok. 2014ko aurrekontuak baliogabetu ostean, “logikoena da horiek ere baliogabetzea, 2014koentzako irizpide berak erabiliz”.

## “Injustua da”

Poza agertu zuten udal ordezkariok, epaia, helegitea aurkeztu eta 3 urtera heldu den arren. “Orain ikusi behar da epai hau nola ezartzen den, Mankomunitateak nola kitatzen dituen 6 udal hauekin dituen zorrak...”, zioen Arbelaitzek.

Epaia exekuzioaren nondik norakoak adostu eta “2018tik aurrerako aurrekontuak hondakinen kudeaketa jasangarriaren irizpideak aplikatuz egin ahal izateko” bilera eskatzekoak ziren San Marko Mankomunitateko zuzendari-tzari joan den asteko agerraldia bukatu ostean.

## “Praktika onak saritu behar dira eta txarrak zamatatu”

Tasak, tarifak eta udalek egin beharreko diru ekarpenak zehazteko irizpideak berregokitu behar direla diote hiru udalotako ordezkariak. “Hemen ordezkatuak gauden udalon jarrera argia da. Herritarren praktika onak saritu behar dira eta txarrak zamatatu. Irizpide horrek gidatu behar luke San Markoren aurrekontua. Hondakinen kudeaketa jasangarriaren printzipioek gidatu behar dute tasa tarifen ezarpena, ez baita posible %80ko gaikako bilketa egiten dugun herriok beste herriek bezainbeste edo gehiago ordaintzea. Injustua da erabat. Irizpide horiek gainera eskala guztietan ezarri behar dira, kudeaketaren ziklo osoan eta esparru guztietan”, zioen Xabier Arregi Usurbilgo alkateak agerraldi berean.

# Udalbiltza eraberritzeko Batzar Nagusia

Euskal Herriko udalen arteko elkarlana sustatu eta Usurbilgo Udala kide duen erakundeak Batzar Nagusirako deia egin du larunbaterako, azaroaren 18an Hernaniko Orona-Ideo Fundazioaren gunean. Hitzordu horretan, urtebeteko “Udalbiltzan Bagabiltza” hausnarketa prozesua borobilduko dute, erakundea bera berritzeaz gain; gobernu berria

eta Batzorde eragilea bozkatu eta aurkeztuko dituzte. Gaur egun, Udalbiltzako lehendakaria Hernaniko alkate Luis Intxauspe da eta lehendakari ordeza, Usurbilgo Udaleko zinegotzi eta gobernu taldeko kide Alaitz Aizpurua.

Herritar eta eragileekin egin duten urtebeteko gogoeta prozesuan dinamika ezberdinak bideratu dituzte eta ia 600



Azaroaren 18an Hernaniko Orona-Ideo Fundazioaren gunean egingo dute batzarra.

bat lagunek parte hartu dutela berri eman zuten Intxauspek eta Aizpuruak aurreko astean

egin zuten agerraldian. Eskualdeka banatutako 50 saioetan hurrengo hamarkadako norabidea zehaztu dute. Udalbiltzaren beharra azpimarratu dute, halako erakunde publiko eta nazionala, bakarra Euskal Herrian, ezinbestekoa dela kohesioan sakontzeko. Udalbiltzaren zilegitasuna eta erreferentzialtasuna ere defendatu dute.

# Gipuzkoako Batzar Nagusiek garraio zerbitzu publikoen aurreproiektuarekin aurrerantz jotzea erabaki dute

Bizi asko dago Gipuzkoan, garraio zerbitzu publikoen inguruko eztabaida, iraila hasieran Gipuzkoako Foru Aldundiak eremu honetan landu duen aurreproiektua aurkeztu zuenetik. Eztabaida honen lekuko zuzena izan ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak azaroaren 8an, gipuzkoarren “parlamentuan” egin zuten osoko bilkuran hain zuzen. Hitzordua gertutik jarraitu zuten Buruntzaldeko hainbat udal ordezkariak; tartean, Usurbilgo Udaleko zinegotzi Jone Urdanpilletak.

## Irtenbide adostu baten alde

Eguneko gaien artean, EHBilduk eta Ahal Dugu-Podemosen garraio zerbitzu publikoetan Aldundia aplikatzekoa den %30 eta kasu batzuetan baita %50era arteko murrizketak bertan behera utzi eta gai honi eragile zein herritarrekin irtenbide adostu bat ematea eskatzen zuten ebazpen-proposamena aurkeztu zuten. Atzera bota zuten ordea gainerako alderdiek.

## 27 bozka alde, 17 aurka

Batzar Nagusietan ziren 44 batzarkideetatik 27 agertu ziren aurka, gainerako 17ak alde. Ebazpen-proposamen honen aurrean gainera, EAJK eta PSEK osoko zuzenketa aurkeztu zuten. Bertan, lizitazio honekin aurrerantz jarraitzea proposatzen dute eta gipuzkoarrek aurkezturiko milaka alegazioak aztertu eta baliagarriak zaizkienak aintzakotzat hartzeko asmoa erakusten dute, aurrerago aurkeztu nahi duten proiektua hobetze aldera. Aipatu moduan osoko zuzenketa hau gehiengoz onartu zuten aldeko 27 bozkekin eta 17 batzarkideren aurkako botoekin. Bozketa aurretik ordea luze jo



Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru departamenduaren proposamenak kezka eragin du herritar sektore askotan.

**MARISOL GARMENDIA,  
MUGIKORTASUN SAILA**

**Alarma soziala piztea egotzi zien oposizioko kideei: “Kritikatze eskubidea duzue baina ezagututa eta egia esanez, ez manipulaturik edo errealitatea faltsutuz”**

zuen benetan bizia izan zen batzarkideen arteko eztabaidak.

## Arrazionalizazioa edo murrizketak

Gipuzkoako garraio zerbitzu publikoari lotutako aurreproiektua landu dutenez, zerbitzuon berrantolaketa eta arrazionalizazioa da sustatu nahi dutena. Murrizketak aldiz, oposizioko taldeen esanetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Marisol Garmendiak gai honekin alarma soziala piztea egotzi

zuten oposizioko alderdiei. “Kritikatze eskubidea duzue baina ezagututa eta egia esanez, ez manipulaturik edo errealitatea faltsutuz”. Gezuratu egin nahi izan zuten autobus lineak ezabatu edota autobusetako langileak kaleratuko dituztenik. Are gehiago, goizeko lehen orduetan zerbitzuak indartu asmo dituztela zioten, eta aldiz, erabiltzaile gutxiago izaten diren orduetan “arrazionalizatu” egingo dituztela zerbitzuak, haien ustez Buruntzaldeko zerbitzuak gairazionalizatuak daudelako. Zerbitzuak efizienteak eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumenaren ikuspuntutik jasagarriak izan behar dutela zioen. “Hobekuntzak deitzen zaie hauei”, defendatu zuten Garmendiak.

Aurreproiektua Gipuzkoako autobus enpresetatik jasotako erabiltze datu errealean oinarritu dutela zioen, eta “orain Buruntzaldeko mugikortasun errealearen argazki zehatza dugu”.

## Udalekin hitz egiteko asmoa

EHBilduk aurreko legegintzaldian gai honetan herritarrekin eginitako parte hartze prozesua kritikatu zuen baita. Prozesu hartatik, herritarren ekarpenetatik, foru diputatuak “esperimentaltzat” jo zituen hainbat autobus zerbitzu jarri ziren martxan. Garmendiaren esanetan, “ikusirik dugu linea haiek zer eman duten. Oso garrantzitsua da errealitateaz hitz egitea, garraio publikoaz ari garenean. Errealitateaz eta ez pertzepzioaz”.

Eskuartearen dutena aurreproiektu bat dela nabarmendu zuten, aurrerantz joko dutela, “interes orokorra” bermatu behar dutela argudiatuta. Aurkeztu diren alegazioek, gerora 2018. urte erdia baino lehen abiatuko ez den proiektua hobetuko dutela eta lasaitasunerako deia egin zuten.

Ildo beretik mintzatu zen baita EAJ-ko ordezkari Mari Angeles Lazkano batzarkidea ere. Gipuzkoarrek aurkeztutako alegazioei buruz zioen, “ekarpen horiek denak aztertuko dira eta

proiektuan txertatuko dira, proiektua hobetzeko balio duten ekarpenak”. Buruntzaldeko udalekin elkarlana sustatuko dutela ere iragarri zuten.

Batzar Nagusietako PP-k, PSE eta EAJ-ren ildotik, Foru Aldundiak aurkeztutako aurreproiektuan murrizketarik ez zuela sumatzen adierazi zuten, zioenez, alegazioak kontuan hartu, udalekin kontrastatu, zerbitzuen argazki errealean izan eta aurrekontu igoera bat aurreikusten baitu Aldundiak.



## “Hemen salatutakoak murrizketak dira”

Haserre hitz egin zuen Patricia Gete Ahal Dugu-Podemoseko batzarkideak. “Ze modu baldarra manipulatzeko eta gure argudioak aldatzeko”, aurpegiratu zien Aldundiko agintariei. Argi berretsi zuen, “hemen salatu direnak murrizketak dira. Gure lana da salatzea eta gobernua kontrolatzea”.

### “Zentzugabekeria da murrizketak aplikatzea”

Garraio zerbitzu publikoetan Aldundiak proposaturiko murrizketen aurrean, kontraesankorra iruditzen zaio Geteri, aurreproiektuan 2016ko datuetan garraio publikoen joan etorriak hazi direla nabarmendu, eta gero “lineak murrizteko erabakiak proposatzea”. Bere esanetan, “Aldundiak ez du ulertzen, garraio publikoen helburu nagusia ezin duela irabazi ekonomikoak edukitzea izan behar, behar sozialei erantzutea baizik. Zentzugabekeria da murrizketak aplikatzea, eskaera handitzen badoa”.



Buruntzaldeko EHBilduko ordezkariak adi-adi jarraitu zuten Batzar Nagusietako saioa. Irudia: EHBildu.

### AHAL DUGU - PODEMOS

**“Ze modu baldarra manipulatzeko eta gure argudioak aldatzeko. Hemen salatu direnak murrizketak dira. Gure lana da salatzea eta gobernua kontrolatzea”**

### Ikasle eta langile asko, zerbitzu publiko alternatibo gabe

Proiektu honek mugikortasun jasangarria ez duela sustatzen eta auto partikularra gehiago erabiltzea bultzatzen duela gaineratu zuen, eta honenbestez, “ikasle eta langile asko uzten ditu, garraio zerbitzu publiko alternatibo eta errea-

lik gabe”.

Errektifikatzeko, murrizketak eten eta udal, eragile zein herritarrekin garraio zerbitzu publikoak berrantolatzea garaiz daudela adierazi zien Getek EAJri eta PSEri. Hala egiten badu, “zuen gobernuak irabaziko du” esan zien EAJri eta PSE-ri.

## “Denek diote ez daudela ados”

Aurreko legegintzaldiari buruzko PSE-ren adierazpenen aurrean, EHBilduren kudeaketa defendatu zuen Jon Albizu batzarkideak. “EHBilduk 5 kontzesio egin zituen eta ez zuen murrizketa bakar bat ere aplikatu”. Oraingo foru gobernuak bai ordea bere esanetan. “Badakigu aurreproiektua dela, baina murrizketak datoz”, zioen. Aldundiko agintariak aipaturiko arrazionalizazioa, murriztea dela argitu nahi izan zuen eta alarma sozialik ez duela piztu EHBilduk. Murrizketon aurka Buruntzaldeko eta Tolosaldeako hainbat udalek, tartean EAJ eta PSEren alde-



Jon Albizu (EHBildu) eta Patricia Gete (Ahal Dugu-Podemos).

ko bozkekin onartu dituzten mozioak ekarri zituen gogora. “Denek diote ez daudela ados (murrizketekin)”, nabarmendu

zuen.

Aurreproiektua izan arren, udalekin, sindikatuekin, herritarrekin hitz egin gabe plan-

teatu dela salatu zuen eta gutxienik haiekin guztiekin hitz egin beharra zegoela aurrez. Erabiltzaile errealak aurkezturiko alegazioak baino dezente gutxiago direla PSE-tik eginitako adierazpenen aurrean, Albizuk zioen “hiritar guztiek dute alegazioak aurkezteko eskubidea. Edo baimena eskatu behar diogu Aldundiari alegazioak egiteko?”. EAJri eta PSEri gogorarazi zien, alegazio epea ez dela Aldundiaren kontzesio bat, obligazioa baizik. Eta aurrera begira eskari argia luzatu zien: “Proposamen berri bat landu, epea bada oraindik”.

## “Zubietako kasua gure akatsa izan da. Ez dugu Zubietako lotura kenduko”

Gipuzkoako Batzar Nagusietan azaroaren 8an osoko bilkuran eta biharamunean, Euskadi Irratian egin zioten elkarrizketan errepikatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatu Marisol Garmendiak, pil-pilean den garraio zerbitzu publikoei lotuta, iraila hasieran Foru Aldundiak argitara emandako aurreproiektuan proposatzen diren murrizketen harira.

Gogoan izan, Aginagatik ospitalera doan autobus zerbitzua ezabatzea planteatzen du Aldundiak. Usurbildik Hernanira doan autobus zerbitzua, Santuenea eta Zubietatik desbideratu asmo dute baita. Azken zerbitzu honen inguruan Garmendiak adierazi zuenez, “Zubietako kasua gure akatsa izan da eta onartzen dugu. Hori ez da kenduko”, hitzokian adierazi zuen Garmendiak Zubietako geltokia (eta aipatu ez bazuen ere, ulertutzat jotzen da Santueneakoa baita) mantendu egingo dutela. Orain arte bezala igaroko dela alegia, Hernanirako nahiz Usurbil alderako autobusa ingurune horretatik.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan aurreko astean egindako osoko bilkuran ere gauza bera errepikatu zuen. EHBilduk eta Ahal Dugu-Podemosek garraio zerbitzu publikoetan aurreikusten diren murrizketen ha-



Zubietako geltokia mantendu egingo da. Orain arte bezala igaroko da ingurune horretatik, Hernanirako nahiz Usurbil alderako autobusa.

### MARISOL GARMENDIA, MUGIKORTASUN SAILA

**“Zubietako lotura ez dugu kenduko, nahiz eta erabilera eskasa izan. Akatsa onartzen dut”**

rira ebazpen-proposamen bat aurkeztu zuten. Ika-mika bizia piztu zen batzarkideen artean. Eztabaidan zehar, Zubietako eta Usurbil lotutako zuzeneko erreferentziarik ez zen falta izan.

“Zubietako lotura ez dugu kenduko, nahiz eta erabilera eskasa izan. Akatsa onartzen dut”, zioen Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak hitza hartu zuenean. Ospitaleetarako autobus zerbitzua, Aginagatik harantz doana zuzenean aipatu gabe adierazi zuen, 2018. urtea amaitzerako Buruntzaldeko zerbitzu gehien-

ak igaroko direla bertatik.

### Murrizketen aurkako proposamena, ez onartua

Garraio zerbitzu publikoei lotutako aurreproiektu honen aurrean alegazioak aurkezteko aukera izan zuten gipuzkoarrek joan den urriaren 23ra arte. Garmendiak, Usurbilen 2.000 herritarrek alegazioak aurkeztu dituztela zioen, autobusen enpresetatik jaso dituzten datuen arabera ordea, askoz gutxiago direla zerbitzuetako erabiltzaileak. Haserrea eragin zuten hitzok oposizioko taldeen artean. EHBildutik eta Ahal Dugu Podemosetik, herritarrek oro har alegazioak aurkezteko duten eskubidea defendatu beharrean aurkitu ziren, nabarmenduz Aldundiak planteatzen dituenak ez direla zerbitzuen birmoldaketak, murrizketak baizik.

## Energiaren eremuko tailerrak Lanbide Eskolan

Zubietako lantzen ari den energia planaren baitan, trebakuntza, sentsibilizazio eta informaziorako tailerrak antolatuko dituzte asteotarako. Saio irekiak izango dira, edonor bertaratu daiteke:

■ Azaroak 16, osteguna: 18:30-20:00 Faktura elektrikoaren optimizazioa.

■ Azaroak 30, osteguna: 18:30-20:00 Energia eraginkortasuna etxean.

Tokia: Usurbilgo Lanbide Eskolako ekitaldi aretoa.

Antolatzaileak: Zubietako Herri Batzarra, Usurbilgo Udala, Donostiako Udala.

## Udal aurrekontuak aurkezteko bilera erronda

2018ko udal aurrekontuak aurkezteko auzoz auzo Usurbilgo Udala datorren astean.

### Lehen bilera, Zubietan

■ Azaroak 20: Zubietako Kaxkapen.

■ Azaroak 21: Txokoaldeko Erroizpe elkartearen eta Kalezarako Haur Eskolan.

■ Azaroak 22: Aginagako ludoetxean eta Santueneako Auzo Elkartearen.

■ Azaroak 23: Potxoenean. Oharra: Bilera guztiak 19:00etan hasiko dira.

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

  
**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

AMA, EZ LARRITU TA DEITU XABIERRI, ETXETRESNAK KONPONTZEN DITU  
645 417 665



**ALDAMU**  
  
**KONPONKETAK**  
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

# Igerileku txikia handitu eta irisgarri bihurtzeko lanak hasiko dituzte 2018an

Oiardo Kiroldegiak aspalditik zuen behar bati erantzuna ematera doa Udala datorren urtean. Hobekuntza nabarmenak burutu asmo dituzte igerileku txikian. Txiki izateari utziko baitio, handitu edo luzatu egingo dute, egun Kiroldegiko sarreak duen espazio horretarantz. Hartara, igerileku honek izan ohi duen erabilera maila altua arinduko duelakoan da Udala.

Baina hobekuntza gehiago ere gauzatuko dituzte. Igerileku txikia denontzat irisgarri izango da berrikuntza lanok amaitzean; lurzoruaen mailara jaitsiko baitute. Alegia, bertara sartzeko egun dituen eskilarak desagertuko dira eta honenbestez gune hau erabili ahal izateko ez da oztopo fisikorik gainditu beharrik izango. Lanok gainera, herritarrok ikusi ezin ditugun igerileku azpialdeko instalakuntzak berri-tzeko ere baliatuko du Udalak.

**Lanak, ahalik eta eramangarrien** Obra hauek 2018. urteko bigarren zatian bideratu asmo dituzte. Aurrerago zehaztuko



Igerilekuko obrak burutzeko, Foru Aldunditik 247.880 euroko laguntza jasoko du Usurbilgo herriak.

## UDAL GOBERNUA

### *Helburua da kiroldegi osoan irisgarritasuna eta guztientzako erabilera egoki bat bermatzea*

dute lanok zer eragin izan dezaketen Kiroldegiko instalakuntzon erabileran. Halere argi utzi nahi dute, ahalik eta afekzio gutxien izatera konprometituko dela Udala eta lanok 2017-18 ikasturteko erabiltzaileen ordainketetan eragiterik

ez dutela aurreikusten.

Etorkizunean faseka burutu nahi duen plangintza baten baitan kokatzen ditu Udalak, igerileku txikia handitu eta irisgarri egiteko 2018rako iragarri dituen lanok. Helburua, Kiroldegi osoan irisgarritasuna eta guztientzako erabilera egoki bat bermatzea litzateke.

#### **Foru Aldundiaren laguntza**

Gai honen lanketan zebiltzala Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol instalakuntzak berritzeko eginiko diru-laguntza deialdia-

ren berri jaso zuen Udalak. Aurreproiektu bat aurkeztu zuten, eta Gipuzkoa osotik eginiko 180tik gora eskaeren aurrean, Usurbilgo Udalak aurkezturikoak puntuazio hoberenetarikoa eskuratu zuen. Bigarrena izan zen balorazio teknikoan. Deialdi honetatik 247.880 euroko laguntza jaso du udalerrri honek. Udalaren kalkuluen arabera, igerileku txikiko lanen %35 inguru finantzatu da laguntza horrekin. Laguntza honek Udala lanak 2018an egitera konprometituazten du.

## Oiardo Kiroldegiko erabilera datuak

### **Abonatuak**

- Emakumeak: 984.
- Gizonezkoak: 1.573.
- Guztira: 2.557 (Usurbilgo biztanleriaren %41 inguru).

### **Abonu motaren eta sexuaren arabera:**

- 0-18 (Haurrak): 305 emakume, 630 gizonezko.
- 19-25 (ikasleak): 51 emakume, 105 gizonezko.

■ 26-65 (helduak): 586 emakume, 778 gizonezko.

■ 66... (jubilatua/pentsiodunak): 42 emakume, 60 gizonezko.

### **Uretako ikastaroak**

- Ikastaro kopurua: 6 igerileku txikian, 11 igerileku handian. Guztira: 17 ikastaro.
- Ikasle kopurua: 45 igerileku txikian, 104 igerileku han-

dian. Guztira: 149.

### **Lehorreko ikastaroak**

- Ikastaro kopurua: 7.
- Ikasle kopurua: 204.

### **Kiroldegia erabiltzen duten Eskola Kiroleko parte hartzaileak**

- 120 emakume.
- 150 gizonezko.
- Guztira: 270.

### **Buruntzaldeko abonatuaren erabilpenak 2017an, Usurbilen**

- Lasarte-Oriakoak: 3.131.
  - Urnietaoak: 355
  - Andoingoak: 157.
- Oharra: Urrira bitarteko datuak.

**Buruntzaldeko erabilpenak guztira Usurbilen:**  
3.643.

# Asteburuan, Gazte Eguna

**B**adator 2017ko Usurbilgo Gazte Eguna. Mahai-ingurua, elektrotxaranga, kontzertuak eta afaria iragarri dituzte azaroaren 17ko astebururako. Adi, afaritarako txartelak salgai baitituzte Aitzagan:

## Azaroak 17, ostirala

■ 22:30 Mahai-ingurua Sute-gin: Usurbilgo gazteen kezken inguruko mahai-ingurua Sute-gin.

## Azaroak 18, larunbata

■ 19:00 Eonian Elektrotxaranga.

■ 21:30 Afaria. Txartelak Aitzagan salgai.

■ 00:00 Kontzertuak: Kezka, Pavloven Zakurrak, DJ X2R Seymar.

■ Oharra: “ez da jarrera sexista, arrazista edota homofoborik onartuko”.



Iaz Erle Eguneako ospakizunen asteburu berean egin zen Gazte Eguna. Aurtun, astebetez aurreratu dituzte ekitaldiak.

## Abenduaren 9ko Parisko mobilizazioa girotzeko ekitaldia

**F**rantzian Euskal Herriko gai bati buruz inoiz ikusi ez den mobilizazioa izatea nahi dute abenduaren 9an “Eta orain presoak” aldarriean Bakearen Artisauek Parisen antolatu dutena.

Euskal preso politikoei aplikatzen zaizkien salbuespen neurriekin amaitzea eskatuko da. Hara joateko tren zerbitzuak beteta daude jada.

### Autobusa Usurbildik

Autobus zerbitzua antolatuko da Usurbildik, ohiko lekutan eman ahalko da izena.



Euskal preso politikoei aplikatzen zaizkien salbuespen neurriekin amaitzea eskatuko dute abenduaren 9ko mobilizazioan.

Abenduaren 9ko mobilizazioa girotzeko ekitaldi girotua antolatu dute azaroaren 25ean, 19:00-21:00 artean frontoian.

Bezperan, azaroaren 24an, Usurbilen Nahi Ditugu bilgu-

neak deituta, euskal presoen eta haien senideen eskubi-deen aldeko elkarretaratzea 20:00etan Mikel Laboa plazan.

### Informazio gehiago:

artisansdelapaix.eus

## Azaroaren 26an, ‘Volar’ dokumentalaren proiektzioa Sutegin

Usurbilgo Udaleko Parekide-tasun Sailak film proiektzioa antolatu du azaroaren 26rako, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren (azaroak 25) biharamunean. “Volar” filma proiektatuko dute 18:00etan hasita Sutegin. Bertha Gaztelumendik zuzendu eta Emakundek ekoiztitako lan honek indarkeria jasan duten 9 emakumeren lekukotzak biltzen ditu.



Argazkian, Bertha Gaztelumendik zuzendaria eta hiru protagonistak.

# Agur hunkigarria Alejandro Tapiari

Iazko abenduan zendu zen margolari aginagarrari egitako omenaldi hunkigarri eta biribilarekin abiatu genuen NOAUA!ren Kulturaldia. Merezitako agurra jaso zuen Alejandro Tapiak.

Bere lagun, senide eta herritarrak bildu zituen Sutegiko auditorioan. Oholtza gainean, ongi asko ezagutzen zituen sorkuntza munduko hainbat lagun. Alejandroren sorterri bera partekatzen duen sortzaile talde bat aritu zen; bakoitzak, ederkien dakiena egiten. Pello Zubiria aginagarrak aurkeztu zuen ekitaldian, Andu Lertxundi eta Antton Olariaga Tapiari eta bere sortze lanei buruz solasaldi alai askoan, Amaia Zubiria kantuan, Txokoalden Txalapartaren Txokoa kudeatzen duten Oreak Tx taldeko kideak txalaparta jotzen aritu ziren. Poema errezitaldi ederra eskaini zuen NOAUA! K.E.-ko lehendakari Idoia Torregarai, Xabier Arregi alkateak Tapiari eskainiko hitz hunkigarriak. Eta haien eskutik jaso zuten, oroigarri eta lore sorta ederra Alejandroren senideek, Sutegi goraino bete zuten herritarren txalo artean.



Alejandro Tapiaren senideek lore-sorta eta bertaratutako txaloak jaso zituzten omenaldiaren amaieran.

## KOADROAK IKUSGAI

**Bere ondare zabaletik hautatutako hainbat koadro ikusgai izan genituen Sutegiko erakusketa aretoan**

**Erakusketak, harrera bikaina**  
Merezitako omenaldi eta agu-

rra jasota, Alejandro Tapiari hobekiago ezagutzeko aukera izan genuen Kulturaldi osoan zehar. Bere ibilbidea irudikatzen duten hainbat sortze lan ikusteko aukera izan genuen kultur etxeko erakustaretoan. Sortzailea hobekiago ezagutzeko aukera paregabea azaroaren 12ra arte. Bere Aginagako estudioan zuen ondare zabaletik

hautatutako hainbat koadro ikusgai izan genituen.

Erakusketa, Usurbilgo Udalaren, Alejandro Tapiaren familia eta inguruaren eta NOAUA! Kultur Elkartearen arteko elkarlanaren emaitza izan da. Lagun mordoa bertaratu da erakustaretoan, eta ikusitakoaz gozatu dutela adierazi izan digute.

# Handia-k txiki utzi zuen Sutegi

Sarrerak salgai jarri genituenetik segituan nabaritu genuen "Handia" filmaren proiektzioak izango zuen arrakasta. Itzela izan zen, hainbestearainokoa, azaroaren 5eko proiektziorako txartelak agortu eta bigarren emanaldia antolatu genuela biharamunean.

Apenas iragarri gabe, bigarren proiektzioak ere hamar-

naka lagun erakarri zituen Sutegiko auditoriora.

Lehenengo pasean gainera, filmeko bi kiderekin solasean aritzeko aukera izan genuen: Joxe Mari Goenaga gidoigilearekin eta Joseba Usabiaga aktorearekin. Biek filmari buruzko hainbat argibide eta bitxikeria azaltzarekin batera, eskertu zuten proiektzioak Usurbilen izan zuen harrera.



Joxe Mari Goenaga gidoilaria eta Joseba Usabiaga aktorea bertaratu ziren.

## Baratze-lanak antolatzeke gida

**G**ida-liburu praktikoak, irakurri, informatu eta landareei buruzko jakintzan sakontzeaz gain, idatzi edo marrazteko aukera eskaintzen diguna; horretarako eta gehiagorako baliagarria baita Landareak lantzen, 2018ko gida-liburua (Argia), Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak landutako argitalpena. Zer landare eta nola zaindu, lanok antolatzeke lagungarria suertatuko zaigun lan tresna, tamaina egokikoa, eramateko erraza.



Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak Landareak lantzen, 2018ko gida-liburua (Argia) aurkeztu zuten Potxoenean.

Urte sasoiaren azalpena, Euskal Herriko klima mapa eta urteko ilgora-ilbeheren eta ilberri-ilzaharren zikloen egutegia jasotzen dituen argitalpena arrakasta itzela izaten ari da. NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan, azaroaren 4an Potxoenean egin zuten aurkezpenean bi egile usurbildarrek ziotenez, lehen edizioa agortzeaz da, bigarrena plazaratzera doaz.

### Jakintza idatziz jasotzeko gonbita

Eremu honetan dihardutenen jakintza galtzen saiheste nahi lukete. “Izugarrizko jakintza galtzen ari gara”, zioen Errekondok Potxoeneko aurkezpenean. Guztia zergatik eta jakintza buruan gordetzeagatik,

### JAKOBA ERREKONDO

**“Izugarrizko jakintza galtzen ari gara”, zioen Errekondok. Guztia zergatik eta jakintza buruan gordetzeagatik, idatziz ez jasotzeagatik**

itik, idatziz ez jasotzeagatik. Ikasteko, hobetzeko, etorkizunean erabaki egokiak hartzen laguntzeko ordea, Jakobak zioen, “nahita nahiezkoa da lehenago zer gertatu den jakitea”. Alegia lehenago zer landatu den, noiz edota non. Horretan ezin lagungarriagoa eskuragarri dugun “Landareak lantzen” gida.

Aipatu moduan, irakurri eta

informatzeaz gain, argitalpena geronek erabili dezakegu eta, idatzi, baina baita marrazteko ere. “Errebindikatzen dut ez bakarrik idaztera, marraztera ere ausartzera. Oso simple, eskema batekin, beldur hori kendu, errotulagailua sartu baina marrazteko”, luzatzen du gonbita Antton Olariagak. Marrazkilaria sortze lan batean aritu zen aurkezpenean, Jakoba Errekondok azalpenak ematen zituen artean. Bertaraturikoak, marrazki eder eta pertsonalizatutun liburu sinatuekin irten ziren Potxoeneatik. 40 urte bete berri dituen Zakilixut-en egile usurbildarrek sortu ditu “Landareak lantzen” gida-libururako ilustrazioak.

## Bertso-kantu-jirari esker atertu zuten

Bertso Txapelketa Nagusia dela eta lehia betean dira bertsolariak, baina lagun arteko saioetarako tartea ere hartzen ari dira asteotan. NOAUA!ren Kulturaldia izan dugu horren lekuko. Bertso-kantu-jira ederraz gozatzeko aukera izan genuen azaroaren 5ean Alaia Martin eta Jon Maia bertsolariarekin, Kantu Taldekoekin eta kalejirak bideratu zituzten Mikel Alkorta trititilariarekin eta Jurgi Fuentes panderojolearekin.



Bota Punttuba, Kantu Taldea eta NOAUA!ren arteko elkarlanak bideratu zuten hitzordua. Kantuzaleen hurrengo hitzordua, azaroaren 25ean 19:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta. Irudi gehiago noaia.eus orriko Argazkitegian.

## San Tomas Azokarako babarrun eta sagardoa

Etxean babarruna eta sagardoa ekoizten duzuenontzako txapelketa bana antolatu dugu urtero moduan datorren abenduaren 17an ospatuko dugun San Tomas Azokaren baitan. Ohi bezala azokarako produktuak lehenago ekarri beharko dituzue, azaroaren 27tik aurrera. Xehetasun gehiago, datorren asteko NOAUA!n.

### Inauteri


#### Festarako gaia

Mozorro festa prestatzen hastera goaz. Beste ezer baino lehen, 2018ko otsailaren 10ean ospatuko dugun Inauteri Festarako gaia hautatu nahi genuke zuen laguntzaz, zuen ekarpenekin. Zertaz mozorrotu nahi zenukete? Egin zuten proposamenak elkarte@noaia.eus helbidera email bat idatzita edo laster tabernetan jarriko ditugun zerrendetan.

### NOAUA! kide

#### izatearen onurak

NOAUA!  
k i d e  
i z a t e a k  
a b a n t a i -  
l a k d i t u .  
K u l t u r  
e l k a r t e  
h o n e t a k o  
b a z k i -



deek ekitaldietarako sarrerak merkeago eskuratu ditzakete. Haietako batzuk gainera doan, NOAUA! kideon artean egin ohi ditugun zozketei esker. “Handia” filma ikusteko bi sarrera zozketatu genituen. Eñaut Lasarte Agirrerri egokitu zitzaizkion. Zorionak!

## Solasaldi bizia Zuriñe Hidalgorekin



Gazte ugari batu ziren Zuriñe Hidalgoren solasaldian.

Maila pertsonal eta ibilbide profesionaleko galderak bata bestearen atzetik egin zizkionten azaroaren 9ra Sutegira hurbildutako haur eta gaztetxoek Zuriñe Hidalgo musikari, aktore eta telebista aurkezleari. Jakinmina bazuten telebista edo kontzertuetatik ezaguna

zuten profesionala ezagutzeko. Euskalduntasunaz, lanean diharduen eremuan emakume izateaz luze zabal jardun zuen. Euskaraz bizitzearen garrantzia eta emakumeek plaza publikoan duten presentzia aritu zen. Hesian taldekoen kanta ezagun bat abesten amaitu zuten saioa.

## Orbeldiren dantza eta jantzien erakusleiho



Txalo zaparrada jaso zuten jantzien jostunek.

Berezia izan zen Orbeldi D.T.-koek Kulturaldiaren baitan azaroaren 10ean eskaini zuten emanaldia. Batetik, askotan ez bezala, kalean egin ohi dituzten erakustaldia areto bateko oholta gainera ekartzeko aukera izan baitzuten. Euskal dantza tradizionalaz gozaz

zigitzen. Orbeldiko dantzarien soinean zeramatzen jantziak jendaurrean erakusteko eta egileen lana eskertzeko ere baliatu zuten hitzordua. Txalo zaparrada jaso zuten Sutegin publiko artean ziren jantzion jostunek. Amaieran talde argazkia atera zuten haiekin dantzariak.

## Kontraesanez eta umorez betetako maletak



Ane Labakak eta Bea Egizabalek 'Erradikalak gara' eskaini zuten larunbatean.

Iragarria zegoen bezalaxe, bi emakume bertaratu ziren Sutegin: Ane Labaka eta Bea Egizabal. "Maletak kontraesanez beteta dakartzagu, bertso eta

bakarriketa formatuan. Erraie-tatik ariko gara, umorez, erroertara iritsi nahian". Baita iritsi ere. Pentsakor baina irribarre batekin atera ziren asko Sutegitik.

## Ikusmin handia sortu zuen Joseba Tapiaren zuzenekoak



Joseba Tapia eta Besamotzak taldearen emanaldiarekin amaitu zen Kulturaldia.

Igande iluntzean, jendetza batu zen Sutegin. Emanaldiaren hasieran, Joseba Tapiak arazo tekniko batzuk izan zituen gitarrarekin. Baina soinu egokiarekin

eman ondoren, giroa epeltzen hasi zen. Amaieran, Tapia eta Leturiaren abesti batzuk eskaini zituzten. Argazki gehiagi, noaueus orriko Argazkitegian.



Saltoki handiak, atzeraldi ekonomikoa, internet...

ez da berdin

**babestu zure herrikoa**

herriko denda txikietan erosteak... handi egiten zaitu!

**eman bizia, bizirik iraungo badu**

hurbilag 

Uzartze Mekanika eta Oribitalak



Uzartze Udalak



Euzko Legebiltzari Guberნათი



# Zine ziklo berria, DBH4koen eskutik

Azarotik martxora, hileroko hirugarren ostiralean Sutegin, zinemetan ikusiko ez ditugun film interesgarri askoez gozatzeko aukera izango da, Udarregi Ikastolako DBH4-ko ikasleen eskutik. Ikasbidaiarako diru-laguntza biltzeko abian jarri duten ekimen berria dugu honakoa. Le-rootan xehetasunak.

**NOAUA! Ikasbidaiarako dirua biltzeko beste ekimen batzuk egin ohi dituzue. Nolatan bururatu zitzaizuen zine zikloaren ideia?**

**DBH4ko ikasleak:** Lehendik haurrentzako zinea eskaintzen dela ikusita, Sutegin film bat proiektatzea bururatu zitzaieen batzuei. Potxoenera joan ginen hori guztia nola egin zitekeen galdetzeraz. Filmazpitatekoekin hartuemanetan jarri eta proiektu berri bat abiatzea erabaki genuen. Hilero azarotik martxora filmak eskaintzea, hirugarren ostiraletan.

**Jatorrizko hizkuntzan baina euskarazko azpitoluekin eskainiko dituzue, zinemetan ikusterik ez ditugun filmak. Nola egin duzue film aukeraketa?**

Filmazpiten aurkitu genituen film interesgarrienak. Haien laguntzarekin egin dugu aukeraketa. Batez ere beraien proiektua euskarazko azpitoludun filmak sustatzera bideratua dago. Ideia ona iruditu zitzaizun, ia nola ateratzen den.

**Zine zikloaren estreinaldia ostiral honetan; "Fatima" proiektatuko duzue. Saiok nori zuzenduak leudeke?**

Filma hona datorren kanpotar bati buruzkoa da. Jendea identifikatua sentituko da. Pelikularen edukiak ere zer hausnartua ematen du, helduentzat proposa. Proiektatuko ditugun filmak gaurkotasan gaiekin lo-



"Filmazpitatekoekin hartuemanetan jarri eta proiektu berri bat abiatzea erabaki genuen. Hilero azarotik martxora filmak eskaintzea, hirugarren ostiraletan", DBH4ko ikasleek aditzera eman digutenez.

## DBH4KO IKASLEAK

**"Dirua lortzeko hainbat ekimen antolatzen ari gara, horietako bat da zinea. Urtero moduan, Erle Egunean eta Santo Tomas Azokan ere egongo gara etxean egindako postreak saltzen"**

tura dute, oso aproposak dira. Ziortzak haurrentzat egin duen moduan, guk ere aproposa ikusten dugu denek izatea zinema ikusteko aukera Usurbilen.

**Ikasturte amaierako ikasbidaiarako dirua ateratzea da helburua. Nora zoazten erabakia duzue?**

Bartzelonara joango gara apirilaren bukaeran, hiru egunerako. Port Aventura joan, belan ibili eta Bartzelona ezagutuko dugu.

**Ikasbidaia berezia izango da zuzentzat. Ikastolako azkena?**

DBH4a azkena izango da eta seguruenik bereizi egingo gara, bakoitzak bere bidea hartuko du gero.

**Zinemaz gain, beste finantziazio iturri batzuk badituzue?**

Dirua lortzeko hainbat ekimen antolatzen ari gara, horietako

bat da zinea.

Artisautza Azokan izan ginen. Urtero moduan, Erle Egunean eta Santo Tomas Azokan ere egongo gara etxean egindako postreak saltzen. Honez gain, ostiraletan tortila pintxoak jartzen ditugu salgai ikastolan eta Buruntzaldean antolatu den euskararen ginkanan ere parte hartzen ari gara. Irabazleak 1000 euro irabazteko aukera du, bigarrenak 500 euro. Irabazten badugu, diru asko aurreztu dezakegu.

**31 talde osatu dira Buruntzaldean, gehienak, 9, Usurbilen. Denak zuen ikasturtean?**

8 gure ikasturtekoak, DBH4koak.

**Zer moduz doa txapelketa?**

Astero proba bat egin behar da. Finalera puntuazio hobereana duten lau taldeak igaroko dira. Guretzat proposamen berri eta ezberdina da. Euskara lantzearekin batera oso ondo pasatzen dugu probetan parte hartzen.

**Ginkana, postreak, pintxoak, zinea... ia doan aterako zaizue ikasbidaia?**

Errifak ere ateratu ditugu. Datozen azoketan salgai izango ditugu eta kalean ere saltzen arituko gara. Zinema dirua

ateratzeko ondo dago, baina azkenean herriari egiten zaion eskaintza da, interesgarria. Interesgarria litzateke, ekimen hau ondo ateratzen bada, hurrengo urteetako DBH4ko ikasleek segida ematea.

**Etxekoak aliatu izango dituzue ekimenotan, baina herri osoari zuzendu nahi diozue zine ziko berria.**

Hirugarren ostiraletan 19:00etan izango da Sutegin. Herri osoari zuzendua dago. Ez lotsatu, animatu eta joan Sutegira. Denok inplikatzeko bagara polita atera daiteke eta jarraipena izan dezake. Herri mailan proiektu berriak ateratzea interesgarria da baina proiektuak ez baditu inork segitzen ezingo dira egin.

## Ostiral honetan

### "Fatima" pelikula

- Azaroak 17, ostirala.
- 19:00etan, Sutegin.
- Sinopsia: "Fatima aljeriarra da, dibortziatua dago eta Frantzia bizi da bere bi alabekin: Souad, nerabe bihurria, eta Nesrine, Medikuntza ikasten hasi berria den 18 urteko gaztea. Egun batean istripu bat du eta denbora batez atsedean hartu behar du. Denbora hori Souadi eta Nesrineri frantsesez esan ezin dien guztia arabieraz idazteko baliatzen du".
- Jatorrizko hizkuntza: Frantsesa-arabiera.
- Azpitoluak: Euskaraz.
- Gaia: Frantsesastasunaren ukapena.
- Iraupena: 79 min.
- Sarrerak: egunean bertan 2 eurotan Sutegin salgai.
- Antolatzaileak: Udarregi Ikastolako DBH4ko gazteak.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

# Elkartasun saskiak

**A**bian da urte garai honetan Usurbila Nafar-tarrak taldearen eskutik heldu ohi den elkartasun kanpaina. Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko eskaintza zabaldu dute aurtengoan. Bertan ekoiztako produktu otarrenkin batera, Hebertik elkar-teak Eperra ikastolako haurrekin landutako abestien CD-a ere eskeratu ahalko baituzue.

## “Behin bazen ikastola” CD-a

Zehaztasunak: Hebertik elkar-teak Eperra ikastolako haurrekin osatua.

Prezioa: 10 euro.

## Ahüzki otarra

Produktu sorta: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa artisanala (150 g), ezti (500 g), euskal xerriki pate (200 g), euskal xerriki odolki (200 g). Prezioa: 40 euro.

## Irati otarra

Produktu sorta: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), ezti (500 g), euskal xerriki lukainak (400 g), axoa



Abenduan, Errigorako otarren bila zatoztenean egin beharko dira ordainketak.

## ZUBEROAKO OTARRAK

**“Iaz bezala, abenduaren 17an ospatuko den San Tomas Azokan egingo da eskaturiko produktuen banaketa”**

xahalki xehatua saltsan (640 g). Prezioa: 52 euro.

### Eskaerak:

Abenduaren 11ra arte NOAUA!n, Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan edo lonxo@telefonica.net helbidean. Aldaketarik ez bada, iaz bezala, abenduaren 17an ospatuko du-

gun San Tomas Azokan egingo da eskaturiko produktuen banaketa.

## Errigorako otarren banaketa abenduan

Nafarroa hegoaldeko produktu otarrak eskatzeko epea amaitu da. Azaroaren 14a baino lehen bideratu dituzuen otarrok abenduan jasoko ditugu NOAUA!ko egoitzan. Heltzen direnean zuekin hartuemanetan jarriko gara. Otarren bila zatoztenean egin beharko dira ordainketak. Informazio gehiago: errigora.eus

## Haimar Zubeldiari buruzko erakusketa larunbatean amaituko da

Haimar Zubeldia txirindulari profesionalaren ibilbideari buruzko argazki erakusketa larunbatean amaituko da.

■ Tokia: Sutegiko erakustaretua.

■ Azaroaren 16an eta 17an: 17:30-20:30.

■ Azaroaren 18an: 11:00-14:00.

## Larunbat honetan ‘Kabaret’ ikuskizuna Sutegin

Ouarda Mallalek munduko dantzak erakusten ditu. Tailer ezberdinak gidatu ditu Usurbilen eta beste hainbat herritan ere. Larunbat honetan, ‘Kabaret’ ikuskizuna eskainiko du berak zuzentzen duen talde batek.

■ Azaroak 18 larunbata.

■ Arratsaldeko 17:00etan.

■ Sutegin.

■ Zehaztasunak: “Familia guztirako Kabaret ikuskizuna, dantza mota ezberdinekin, eta eskualdeko dantza taldeen parte-hartzearekin”.

# %3ko igoera, 2018ko zerga ordenantzetan

**A**zken 3 urteetan bere horretan mantendu ostean, 2018ko udal zerga ordenantzetan %3ko igoera orokorra aplikatzea erabaki zuen hasieraz udalbatzak gehiengo osoz, urriaren 31ko osoko bilkuran.

Udal gobernu taldetik zerbitzu publikoak eskaintzeko nahikotasun finantzarioa lortzea ezinbestekotzat jotzen dute, eta testuinguru horretan kokatzen dute %3ko igoera. “Herritarren oinarritzko es-

kubide sozial eta ekonomikoak bermatzea izango da helburu nagusia, horretarako progresibitatean eta ekitatean oinarritutako ordenantza onartu da. Hobariak, laguntzak, zein zerga ordainketa atzerapenak eskainiko dizkiegu baldintza ekonomikorik okerrenetan bizi diren herritarrei”, iragarri dute.

### Salbuetsitako zergak

%3ko igoera orokor horretatik salbuetsita geratuko dira hainbat zerga. Esaterako,

eraikuntzen gainekoak, udal zergen %50a biltzen dute. Hondakinen sortez besteko ordainketa sistema litzateke beste salbuespena, Foru Aldundiak zehazten duen etxez etxeko zerbitzuko eta Egunko Zentroko prezioak... Beste hainbat zerga bere horretan mantenduko dituzte.

### PSE eta EAJ, abstenitu

Hasieraz onartu zituen udalbatzak 2018rako zerga-ordenantzok eta egutegi fiskala urriaren 31ko osoko bilkuran,

EHBilduko ordezkarien aldeko bozkekin. PSE eta EAJ abstenitu ziren.

### Erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea egongo da. Epealdi hau igarota erreklamaziorik ez bada, behin betiko onartutzat joko da. Bestela, udalbatzak behin betiko onartu beharko du.

# Gure lagun txikiak



“Aurtengo ikasturtean HH-4 urtekoen lagun handiak izango gara”.



“Marrazki bat egin genuen elkarrekin eta gero patiora joan ginen jolastera”.

**A** din nahasketa haur txikiak handiagoekin elkartzeko da, elkarrekin zenbait ekintza egiteko asmoz.

Haur txikiagoek handiagoen babesa eta laguntza izatea litzateke helburua, handiagoak direnak txikien eredu bihur-

tzen direlarik. Noski, denok elkarrekin ondo pasatzea eta gustura egotea litzateke garrantzitsuena.

Gu aurtengo ikasturtean HH-4 urtekoen lagun handiak izango gara. Gutariko bakoitzak lagun txiki bat izango du 4 urtekoa.

Lehenengo saioan, lagun

handiek (guk) ipuin bat kontatu genien txikiei (HH4-koei). Ondoren, marrazki bat egin genuen elkarrekin eta jarraian patiora joan ginen jolastera.

Esan behar da, hasieran urduri samar sentitzen ginela, baina berehala joan ginen lasaitzen.

Hasieran urduri samar senti-

tzen baginen ere, berehala joan ginen lasaitzen eta oso ondo pasa genuen. Berrito errepikatzeke irrikitan gaude.

Bukaeran, elkar agurtu genuen hurrengo saiora arte.

A! gure lagun txikia ikusten dugunean, beti egiten diogu kaso.

**L.H-3.mailako ikasleak**

## San Martin Egunari abesten



Kantuan aritu ziren, giro euritsua tarteko, Agerialde eraikineko aterpean.

**U** sadio zaharrei erreparatzen badiegu, hainbat baserrietan txerria hiltzeko eguna izan ohi dugu azaroaren 11, San Martin Eguna. Oraingoan larunbatez egokitu zen hilaren 11ri aurre hartu zieten Udarregi Ikastolakoek.

Bezperan, kantuan aritu ziren, giro euritsua tarteko, Agerialde eraikineko aterpean. Merezi-tako omenaldia egin nahi izan zioten txerriari, “Azaroak 11” kanta abestuz. Jaione Eskudero irakasleak gidaturiko saioan Imanol Urbietak sortutako Haur

Kantarien “Birlorak” liburutik hartutako 3 bertso abestu zituzten HH eta LHko ikasleek. Ikasle batzuk kantatzen ari ziren artean, beste batzuk txirulekin Udarregi Ikastolarako instrumentuentzat moldaturiko hiru ahots lagungarri jo zituzten.

### Antxomolantxakoen hitzorduak Aginagan

#### Azaroak 18, larunbata

17:30 “Irrien sukalde txokoa” Aginagako ludotekan. “Haurrek pizza, taloak, zurrupakiak edo pintxoak egiten ikasiko dute”. Sarrera doan.

#### Azaroak 25, larunbata

09:30-13:30 “DYAko lehen sorospinak haurretan” Aginagako ludotekan. Izen ematea azaroaren 22ra arte, 677 882 321 telefono zenbakian edo ludotekan.

#### Azaroak 26, igandea

17:30 “Irabazle eta galtzaille” familia osoari zuzenduriko film proiektzioa Aginagako ludotekan. Sarrera doan. Antolatzailea: Antxomolantxa.

# Haimar Zubeldia, herri

**H**amaika bizipen, hamarnaka itzuli handi, saiakera itzela eta bidean izerdi ugari utzi ostean, abiapuntura itzuliko da larunbatean. Txirrindulari gisa hazi eta hezten ikusi zuen sorterrira. Herriak goratuko duen podiumera igo eta merezitako errekonozimendua jasoko du Haimar Zubeldiak hilaren 18an. Hedabide hau berarekin bildu da bezperatan.



Erretiratu berri da baina ondo sentitzen dela aitortu digu: "bizitzan gauza berriak eta aparkatuak nituenak egiteko ilusioz".

**NOAUA! Zer moduz, udan erretiroa hartu eta gero, bizimodu berrira egokitzen?**

**Haimar Zubeldia.** Denbora bat hartu nahi nuen errealtate berrira egokitzeko eta zer egin nahi dudan ikusteko. Pauso hori emana dutenek ere hala aholkatu didate; gauzak lasai hartzeko eta gauzak ateratzen doazela. Une horretan nago. Nahiko argi dut baita zer egingo dudan, gauza batzuk lotu ditut. Baina ondo nago, bizitzan gauza berriak eta aparkatuak nituenak egiteko ilusioz. Zorteduna ere sentitzen naiz, nik erabaki bainuen noiz, nola eta non utzi nahi nuen. Askok ez dute horretarako aukera izan eta horrekin ere dena eman dudala nabari dut, ez zait inolako korapilorik geratu barruan.

**Maila profesionaletik erretiratu arren, bizikleta ez duzu utzi. Zure twitterreko kontuan mendi aldean ikusi zaitugu?**

Mendiko diziplina beti gustuko izan dut, neguan beti egin izan dut. Jorratu nahi dudan ibilbide bat da. Pirinioetan udaren parte handi bat pasatzen dut eta han leku ederrak daude horretarako. Hemen ere bai udazkenean, asko gozatu dut. Betiko errutinatik asfaltoa behan ikusten da, berezia da. Polita. Uda ere deskubritu dut pixka bat. Azken 20 urteotan

**HAIMAR ZUBELDIA**  
**"Zorteduna sentitzen naiz. Nik erabaki nuen noiz, nola eta non utzi nahi nuen"**

edo gehiagoan, uda zetorrenean ingurukoak oporretan zeuden baina nik ez nuen gozaten behar bezala. Aurten benetan ikusi dut uda zer den eta gozatu dut.

**Erretiratzeko erabakia hartzea zaila egin zitzaizun, hausnarketa prozesu baten emaitza izan da?**

Argi dagoena da, azken urteotan neure buruan garrantzia geroz eta gehiago hartzen ari zen, eta inguruan, etxean ateratzen ziren elkarrizketetan ere bai. Zuk ere sentitzen duzu garaia ere badatorrela. Aurten bai, geroz eta garrantzia handiagoa zeukala, beti entrenamenduetan, bakardadean, zure bukaera nolakoa izango litzatekeen askotan irudikatu edo egiten duzu. Nik hala nuen pentsatu

ta. Unea heldu zenean ekipoari planteatu nion. Azken erabakia Tourrean hartu zen eta denak azkar korritu zuen.

**Irudikatu bezalako bukaera izan da?**

Bai baina gero uste baino hobea. Pasa den bezala. Denborekin ari naiz kontziente izaten gauza guztietaz eta are politagoa da. Benetan, bukaerak asebeteta utzi nau.

**Donostiako Klasikako azken metro haiek bereziak izango ziren. Nola bizi izan zenituen?**

Bezperatik banekien biharamuna azkena izango zela profesional gisara. Bezperan neure ibilbidean lagundu didaten guztiei, etxekoei, denei sentitzen nuena mezu bidez idazten, eskerrak ematen saiatu nintzen. Biharamuna egun berezia eta polita izan zen. Sorpresak izan ziren. Lasterketa txukuna egin genuen eta lasterketan zehar, txirrindulari asko ibilbide guztiagatik zorionak ematera hurbildu zitzaizkidan eta horrek bat betetzen du.

**"Oparitu zidaten karrerretako bizikleta bat eta hala apuntatu ginen Usurbilgo eskolan"**

**NOAUA! Maila profesionaleko 20 urteotako ibilbidea aipatu da sarritan, zure ibilbidea aldiz lehenagotik hasi zen. Noiz hasi zinen lehen pedalkadak ematen?**

**Haimar Zubeldia.** Usurbilgo eskolan. Garai hartan herriko eta auzoetako jaietan ohitura zen egunetako batean txirrindulari lasterketa egitea. Egutegi aldetik beti lehen jaiak Kalezarkoak izaten dira eta lehen lasterketa

hartaz akordutzen naiz. Bitxia da, urte asko pasa dira baina egun hartako hainbat irudiez oroitzen naiz. San Estebango festetan, herrikoetan, Aginagan ere egiten ziren lasterketak. Aita bere lagunekin iriteten zen igandeetan eta nik uste hark sortuko zidala jakinmin edo txirrindularitzarako har hori.

Askotan kontatu izan dut, oparitu zidaten karrerretako bizikleta bat eta hala apuntatu

ginen Usurbilgo eskolan.

**Usurbildar lagun bat baino gehiago txirrindularitzakoak emandakoak izango dituzu.**

Bai, gaur egun mantentzen dugun koadrilan ia gehienak txirrindularitzatik pasatukoak gara. Badakizu gazteetan modak izaten dira, eta bospasei baginen adin berdinekoak ginenak Usurbilgo eskolan. Ia afizionatuak arte hor segi zutenak.

# omenaldiaren atarian

**NOAUA! Txirrindularitza eskolako hezitzaile izan zenuen aurten Usurbilgo herriak omendu duen beste herritar bat; Ramon Unanue. Nola oroitzen duzu eskola hura?**

**Haimar Zubeldia.** Oroitzapen oso onak ditut. Akordatzan naiz orduan, nahiz eta Usurbil handia ez izan, txirrindulari eskolak pisua zuen eta gainera gauzak ondo egiten ziren: Ramonek berak bere denbora asko jartzen zuen eskolan eta kategoria ezberdinetan maila ederra eman zuten txirrindulari onak atera ziren handik. Usurbilgo eskolak beti zuen fama ona, ziklokrosa, errepideko diziplina, pista... egiten genuelako. Ramonen ondorena hor egon da. Berak bere eragina eman zigun diziplina mailan. Saiatuta zerbait lor genezakeela helarazten zigun.

**20 urteok gozotik edo gazitik gehiago izan dute?**



“Neure zaletasuna ogibide bihurtu zen eta asko gozatu ahal izan dut”.

## HAIMAR ZUBELDIA

**“20 urteak azkar pasa dira. Une txar bat baino gehiago egon da, baina gozoak askoz gehiago izan dira”**

Gozotik dudarik gabe gehiago. 20 urteok azkar pasa zaizkit. Une txar bat baino gehiago egon da, baina gozoak askoz

gehiago izan dira. Zorteduna izan naiz, neure zaletasuna ogibide bihurtu zen eta ogibide horretaz gainera hainbeste urteetan gozatu ahal izan dut. Lesioak izan ditut baina hau utziarazi didan lesio bakar bat edo bestelako arazorik ez. Asmatu egin dudala esan liteke.

**Konstantziak definitu dezake zure ibilbidea?**

Neure ezaugarrietako bat da konstantzia eta lana. Ramonengandik, gurasoengandik lan eginez eta konstantziarekin gauzak ateratzen direla jaso dugu. Neure betiko lemetako bat hori izan da. Gauzak gaizki joan direnean ahal bada beste puntu bat eman, eta aterako direla sinisten jarraitzea.

**20 urteotan, egiteke zerbait geratu zaizu?**

Momentuz ez. Badaude egin ez ditudan lasterketa batzuk, adibidez Paris-Roubaix edo Milan-San Remo, baina ez dut sentitu egunen batean egiteko ez inbidiarik edo gogorik. Gustukoenak askotan egin izan ditut. Txirrindularitza aparte, bidean bai utzi ditut egingo nituzkeen hainbat gauza. Orain denbora dudanez, egiteko aukera izango dudalakoan nago.

## “Errekonozimendu handia da”

**NOAUA! Lasterketan zoaztela animatzen dituzunak ez dituzula ikusten dirudi, baina ez da hala ezta, zaletuen babesa heltzen zaizue?**

**Haimar Zubeldia.** Dirudiena baino errazagoa da. Kanpotik barrukoa ikustea baino errazagoa da barrutik kanpokoa ikustea. Geldirik daudenak kanpokoak dira eta askotan kontziente zara zu animatzeko jendeak egiten duen ahalegina. Zer gutxiago keinuren bat egitea, hurbildu eta eskua ematea, bera konturatzeko zu hor zaudela. Esker onekoa izatea dela uste dut.

**Larunbateko herri omenaldia, abiapuntura itzultze modukoa izango da?**

Bai. Zarautzen bizi arren, usurbildarra sentitzen naiz. Zure herrian halako gauza bat egitea oso polita da, bat harrotasunez betetzen da. Errekonozimendu handia da eta ez dakizu zer esan. Hitzak falta zaizkizu. Gozatzea espero dugu, eta jendeak ere gozatzeta. Azkenean ospakizun bat da. Seguru besteren bat etorriko dela atzetik. Badira Usurbilen hor dabilizan gazteak, Xuban Errazkin tartean.

**Erretiroa iragarri zenuenean zenion, beti izango zinela txirrindularia baina beste amets batzuen bila zoazela orain. Eta orain zer?**

Maila profesionala utzi nuenetik bizikleta ganean jarri ez naizen egun gutxi egon

dira. Gaur ere nire itzulia egin dut. Urte guztiotan geratu dira egin nahi baina egin ez ditudan gauzak, asko txirrindularitzarekin lotuak. Mountain bikeko proba ezberdinak egin nahi ditut, bada lasterketa bat egiteko proiektua, triatloia ere jorratu nahi dut...

Txirrindularitzari lotuta ere egongo naiz, beste era batean. Familiari ere denbora gehiago dedikatu nahi nioke orain.

**Zer esan bide bazterretan zain izan dituzun jarraitzaileei?**

Dudarik gabe eskerrik asko. Askotan saiatu naizen arren keinu bat egiten, beti sentitu izan dut hauspo hori edo arnas hori atzean eta batez ere eskerrik asko.

## Herri omenaldia

**Azaroaren 16-18**

■ 17:30-20:30 Argazki erakusketa Sutegin.

**Azaroak 18, larunbata**

■ 8:30 Haimarrekin Andatzara txirrindaz. Abiapuntua: Frontoia. Ibilbidearen iraupena 2 ordu eta erdi. Deialdi irekia. Bi ibilbide egingo dira, zati bat modu bateratuan.

■ 11:00-14:00 Argazki erakusketa Sutegin.

■ 12:00 Haimarrekin txirrinda ibilbide girotua herrian zehar. Adin guztientzat. Azken metroetan Porrotx bidelagun.

■ Abiapuntua eta helmuga: Dema Plaza.

■ 13:00 Omenaldi ekitaldia frontoian.

■ 14:30 Bazkaria Aginaga Sargardotegian. 100 txartel salgai Bordatxon. Helduenak 30 eurotan, haurrenak 12 eurotan.

Antolatzailea: Haimar Zubeldia Taldea.

# 50 herritar, 53. Behobia Donostian

50 herritarrek parte hartu dute 53. Behobia Donostian. Haietatik 49 lagunek lasterka, eta herritar batek patinatzaileen modalitatean. Herritarren artean lasterka denbora hobereana egin dutenen artean, Iñaki Añorga Unanue gizonetzkoetan eta Rosa Uribe Navarro emakumezkoetan. Patinatzaileen artean, 25. postuan sailkatu zen Carlos Jimenez Goya.



Behin behineko sailkapena jaso dugu orri honetan.

Segidan duzue herritarren sailkapena. Aipatu behar da halere, behin behineko sailkapena dela honakoa. Sailkapen honi erreklamazioak aurkezteko azaroaren 20ra arteko epea dute parte hartzaileek. Behin betiko sailkapena abenduan emango dute eza-gutzerara. Bestalde, azaroaren 12ko lasterketan parte hartu eta sailkapenean agertzen ez bazara, antolatzaileekin hartuemanetan jarri zaitezke, helbide honetara idatzita: info@behobia-sansebastian.com

## Informazio gehiago:

behobia-sansebastian.com

## Lasterkarien sailkapena

### Usurbil

251-Iñaki Añorga Unanue 01:14:54  
630-Jon Tapia Lizarraga 01:18:57  
1712-Iñaki Gerica Juan 01:24:44  
1783-Xabier Izeta Aramendi 01:25:01  
1953-Rosa Uribe Navarro 01:25:40  
2784-Tito Izaguirre Godineau 01:28:21

## HERRIKO ONENAK

**Iñaki Añorga Unanue gizonetzkoetan eta Rosa Uribe Navarro emakumezkoetan. Patinatzaileen artean, 25. postuan sailkatu zen Carlos Jimenez Goya**

3488-Alfonso Lopez Garcia 01:29:59  
3624-Arturo Rojas Pedrini 01:30:18  
4072-Aitor Jauregi Urdampilleta 01:31:23  
4570-F. Javier Dominguez 01:32:37  
5536-Jon Arriaga Lertxundi 01:34:42  
5895-Jokin Zubiaur Blasco 01:35:28  
5949-Jose Manuel Iñarra Ferreira 01:35:34  
7790-Garazi Artola Balda 01:38:43  
7793-Eneko Portu Irasuegi 01:38:43  
8768-Joxemari Portu Azpiroz 01:40:09  
9218-Imanol Almandoz Odriozola 01:40:55  
9389-Julen Lazcano Iturrioz 01:41:13  
9472-Axier Dominguez Prieto 01:41:20  
9889-Ander Jauregi 01:41:56  
9907-Izadi Azkonobieta Etxabe 01:41:56  
11337-Maialen Illarramendi 01:44:23  
11645-Eduardo Jauregui 01:44:50  
11646-Alazne Olaizola 01:44:50  
12681-Asier Portularume Isasti 01:46:39

13083-Iker Corral Lizarraga 01:47:19  
13105-Iñigo Alkorta Etxeberria 01:47:21  
13107-Erramun Erro Aizpurua 01:47:21  
13550-Ion Portu Irasuegi 01:48:00  
13866-Jon Guembe Urrea 01:48:29  
14365-Martin Alustiza Guereñu 01:49:18  
14726-Pablo Roura Martinez 01:49:53  
15005-F. Javier Rodriguez 01:50:27  
15441-Juan Carlos Perez 01:51:15  
16509-Julen Lertxundi 01:53:06  
16943-Sergio Montes Guerra 01:53:56  
17083-Maider Elizasu Lasa 01:54:12  
20787-Joseba Bengoetxea 02:02:32  
20791-Salvatore Arruti 02:02:33  
21109-Gaizka Zumeta 02:03:30  
21136-Gurutze Sierra Moron 02:03:36  
21139-Sergio Garcia Sierra 02:03:36  
21146-Maximo Garcia Sanchez 02:03:37  
23832-Oliver Garcia Linares 02:19:56

## Zubieta

10672- Irati Izaguirre Kastresana 01:43:19  
22646-Alfonso Perez Jimenez 02:09:59

## Aginaga

4482-Darwin Morales Guevara 01:32:24  
9655-Ander Aristegi Otamendi 01:41:35  
20834-Nicolasa Corea 02:02:41

## Patinatzaileen sailkapena

### Usurbil

25-Carlos Jimenez Goya 00:50:02

# Wiesbadengoak, Lanbide Eskolan bisitan

Wiesbadengo Friedrich-Ebert-Schul-eko ordezkari bat Usurbilgo Lanbide Eskolan izan da bisitan. Bertako metodologia berritzaileak, enpresekiko harremanak eta Dual Sistemaren bilakaera ezagutu nahi izan dituzte.

“Usurbilgo Lanbide Eskolan apropos antolaturiko guzueetan sormena bultzatzea, eronken bidez aritzea edo-

ta taldeka hainbat proiektu garatzea berritzaile izateko aukera areagotu egiten duela ikusi dute”, Lanbide Eskolatik aditzera eman digutenez. “Usurbilgo Lanbide Eskolak enpresekin duen kudeatze sistemaren berri ere izan dute”.

Arduradun hauek Usurbilgo Lanbide Eskolan azaldutakoa eta jasotakoa aberasgarria izan dela eta



Bertako metodologia berritzaileak ezagutzera hurbildu ziren.

Friedrich-Ebert-Schulen hainbat prozesu abian jartzeko aukera aztertuko dute.

## %1,6ko igoko dira taxi-tarifak

2014az geroztik ez zen igoe-rarik aplikatzen. 2018rako bai, %1,6 igoko dira taxi-tarifak. Urtero, Gipuzkoako taxilariak biltzen dituzten bi elkarten tarifa proposamenak jasotzen dituzte udalek, G.Taxi eta Agitax elkarteek. Urte berrirako biek proposatzen dituzte igoe-rak: G.Taxik %1,8, Agitaxek %1,6koa. Proposamenok eremu honetan Buruntzaldeko udalek osatua duten batzordean aztertu zituzten irailaren 28an. Aho batez, igoera txikiena planteatzen zuen Agitaxen planteamenduari aho bateko onespina eman zioten. Baita urte berrirako tarifa hauei ere:

## 2018ko tarifak

■ Tarifa 1 (lanegunak, 7:00-22:00).

Gutxieneko tarifa: 5,2019.

Egindako km: 1,1059.

Itxaronaldia orduko:

21,2222.

■ Tarifa 2 (egunero 22:00-7:00 artean; larunbat, igande eta jai egunetan, abenduaren 24 eta 31n 7:00-22:00 artean).

Gutxieneko tarifa: 6,2004.

Egindako km: 1,7715.

Itxaronaldia orduko: 33,3527.

## Energiaren eremuko tailerrak

### Lanbide Eskolan

Zubieta lantzen ari den energia planaren baitan, trebakuntza, sentsibilizazio eta informaziorako tailerrak antolatu dituzte asteotarako.

## Saio irekiak izango dira:

■ Azaroak 16, osteguna: 18:30-20:00 Faktura elektrikoaren optimizazioa.

■ Azaroak 30, osteguna: 18:30-20:00 Energia eraginkortasuna etxean.

Antolatzaileak: Zubietako Herri Batzarra, Usurbilgo Udala, Donostiako Udala.

# Hilabete amaiera, mendizaletuena

**M**endizaleena izan ohi da azaro amaiera Usurbilen. Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek hutsik egin gabe mendi irteera, bazkari eta proiektio ezberdinak antolatu dituzte hurrengo asterako:

## Mendi Astea

### Azaroak 23, osteguna

■ 19:30 "K2. Zerua ukitzen" dokumentala Sutegiko auditorioan. Sarrera doan.

"2015eko Bilbao Mendifilm Festibalean aurkeztutakoa eta saritutakoa. 1986ko udan mundu osoko dozena bat herrialde-tako espedizioek K2 mendia aldi berean igotzeko egin zuten saiakera kontatzen du filmak, mendian hil ziren 13 eskalatazaleetako lau seme-alabaren begietatik".

### Azaroak 24, ostirala:

■ 19:30 "Biziminez" dokumentala Sutegiko auditorioan. Sarrera doan.

"Bi adiskide AEBko errepidean



Josu Iztueta eta Pablo Dendaluze zuzendaria, "Biziminez" dokumentalaren kartela eskuetan dutela. Azaroaren 24an Sutegin ikus ahal izango dugu. Argazkia: Ataria.

### ANDATZA M.K.T.

**"Sutegin burutuko diren ekitaldiak hasi aurretik, federatu txartelak berri eta asteburuko ibilaldirako izena emateko aukera izango da"**

"amets txiki bat betetzen". Errepideko zeharkaldia bera

baino garrantzitsuagoa da baina bidaia: oroitzapen eta bizi-pen eder eta ez hain ederrak, jolasak, eta negarrez eta umorez gaindituko dituzten bidean aurkitutako oztupoak. Bizitzari buruzko gogoeta sakona, bi adiskideren erretratu zintzoa, bizimina transmititzen duen road movie hunkigarria".

Zuzendaria: Pablo Dendaluze. Musika: Juantxo Zeberio.

Protagonistak: Antxon Arza eta Josu Iztueta.

Iraupena: 42 min.

### Azaroak 25, larunbata:

■ 07:30 Usurbil-Zarautz irteera frontoi atzetik, Pagoetatik.

Ondoren, bazkaria Zarauzko Euskalduna jatetxean. Izen ematea: azaroaren 21era arte, 17 euroko ordainketa egin.

Oharra: Sutegin burutuko diren ekitaldiak hasi aurretik, federatu txartelak berri eta asteburuko ibilaldirako izena emateko aukera izango da Sutegi kultur etxean bertan.

Antolatzailea: Andatza.

### Informazio gehiago:

www.andatza.com

## Eskubaloia

### Kiroldegian

#### Azaroak 18, larunbata

- 11:00 Infantil neska, Gipuzkoa: Udarregi A-Egia
- 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Zarauz
- 17:15 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Zarauz
- 19:00 Senior mutilak, 1. nazionala: Usurbil K.E.-Dominicos.

## Futbola

### Haranen

#### Azaroak 18, larunbata

- 09:30-11:30 Benjaminak eta alebinak Rugbyko topaketa.
- 11:30 Kadete neska: Usurbil F.T.-Orioko F.T.
- 16:00 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Danena K.E.



Aurreko igandean, Larreatik abiatu eta Elgeako zerraren gainetik Araiarraino joan ziren Andatzakoak, haize errota eta lainoen azpitik.

**Inaki Iturgintza**

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com

**600 024 825**

Josue Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m<sup>2</sup> eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m<sup>2</sup>, borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berrituta. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

## Alokairuan

Pisu bat alokairuan Santuenean. Oso ondo dago. Tel. 667 912 307 / 626 428 463

Pisua alokairuan, saltzeko aukerarekin. 3 gela, bi komun, sala-jantokia, sukaldea, garajea, trasteroa. 699421239

3 logelako etxebizitza alokatzen dut Muna Lurra kalean. 943 36 53 58 / 661 43 63 53

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil.

Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolfer tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro<sup>2</sup> lokal bat salgai. Alperburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarririk ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Mo-

txe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup> karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Astehenetik ostiralera, 08:00-15:00 artean haur zaintza eta etxeko lanetan aritzeko langile euskaldun bat behar dut. 656 730 759

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan

aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauzez zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638

## Heriotzak

## Juan Manuel Díaz Vega

48 urterekin hil zen azaroaren 9an Usurbilen

## Antonio Añorga Goenaga

88 urterekin hil zen azaroaren 11n Usurbilen



Zorionak Urko eta Odei, muxu pila bat familia guztiaren partetik. Zorionak!!

**OHARRA:** 2017ko azaroaren 24an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: azaroaren 20an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus



877 627

Lan bila nabil. Interna bezela edo orduka eta astelehenetik ostirale-  
ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezela, or-  
duka, gauetan... edoizen moduan.  
Pertsona helduak zaintzen,  
garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia  
eta esperientziarekin eskaintzen  
da. Pertsona helduak edo umeak  
zaintzeko edo garbiketan lan egite-  
ko. Irterna moduan, orduka edo  
gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan la-  
nean hasiko nintzake. Pertsona  
helduak edo umeak zaintzen edo  
garbiketan, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean,  
120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da  
garbiketa egiteko orduka edo goi-  
zetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka  
lan egiteko. Etxeak garbitu edo  
adineko pertsonak zaintzeko. Tel.  
687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka:  
619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo  
sukaldari bezala (euskal sukaldear-  
ren ezaugarria). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxee-  
tan ilea orrazteko eskaintzen naiz.  
Aproposa pertsona helduentzat,  
edo etxetik atera ezin duenare-  
zat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo  
garbiketa lanak egiten lan egingo  
nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan  
egingo nuke, pertsona helduak  
zaintzen. 602 871 835.

Ettxeko lanak egiten edo garbiki-  
tan, umeak edo pertsona helduak  
zaintzen edo sukaldetan lan egin-  
go nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila da-  
bil. Interna moduan eta orduka.  
Pertsona helduak edo umeak zain-  
tzen edo garbiketa lanetan. Bere-  
hala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel-  
duak zaintzen edo etxeak garbi-  
tzen. Tel 632 587 450.

Ettxeko lanak egiten, eta helduak  
edo umeak zaintzen lan egingo  
nuke. Paperak egunean. Interna  
moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen  
gaztea, geriatrian laguntzaile  
tituluduna, tabernak garbitzen

eta sukaldari laguntzaile gisa  
aritutakoa, orduka edo interno  
moduan garbiketa lanetarako  
edo helduak zaintzeko prest. 669  
679 186

Emakumea eskaintzen da arra-  
tsaldeetan hiruzpalau orduz  
etxeko lanetan aritu edo adine-  
koak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta  
paperekin, ordukako lan baten  
bila: plantxa lanetarako, haur  
eta adinekoren zaintza, garbiketa  
lanak, tabernan arraskan aritze-  
ko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Ettxeko zerbitzuan, helduak edo  
umeak zaintzeko eskaintzen  
naiz. Usurbilgoa naiz eta errefe-  
rentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna,  
helduak zaintzeko eta etxeko zer-  
bitzurako prest, baita garbiketa  
lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe  
batean harraskan aritzeko edo  
pertsona helduak zaintzen. Pa-  
perak egunean. Tel. 667 983 617.

**BESTELAKOAK**

Patinetea salgai. Oxelo 7 TOWN

Susp markakoa. Prezioa: 30  
euro. 656 734 413.

Gitarra klaseak ematen dituen  
pertsona baten bila gaude. 657  
795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean  
Donostiara doan Usurbilgo auto-  
bus geltokian poltsa gorri batean  
gaitza bakero batzuk utzi nituen.  
Norbaitek ikusi edo hartu badu  
deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kaketua txiki bat  
(ninfá) galdu da. Txuria eta es-  
kubiko hankan eraztun urdin bat  
duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606  
060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxe-  
ko membrilloa salgai. Interesatuz  
gero: 656742048 (Miren) edo  
656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko ni-  
tuzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektriko  
(gutxi erabilia) eta enkorbadora  
salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arra-  
zakoak saltzen dira. 637 974 994

Litera bat salgai, metalikoa, grisa  
eta 2 X 0,90 metroko neurriekin,  
salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-  
3 urteko grupukoa. Arroxa. 646  
305 658.

Pago egurra salgai (txinis-  
ko eta ekonomikako egokia)  
627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira.  
Kontaktua: 699 609 058.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak,  
patineteak, liburuak... Garbi-  
gunean. Doan hartu daitezke.  
Astelehenetik ostiralera:  
10:15-13:00 / 16:00-19:00  
artean. Jai egunak ez diren la-  
runbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016	
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 16** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 17** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 18** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 19** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 20** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 21** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteazkena 22** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

## Azaroak 16 - azaroak 26

**Osteguna 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 24** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 26** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE  
Elkano 9 Behea, Hernani  
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak** [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda azaroa

## 17 ostirala

- Haimar Zubeldiari buruzko argazki erakusketa 17:30-20:30. Sutegin.
- "DYAko lehen sorospenak haurretan" hitzaldia 17:30ean Bihurri Ludotekan.
- "Fátima" filma Sutegin. 19:00etan.
- Gazte Eguna. 22:30ean solasaldia Sutegin.

## 18 larunbata

- Haimar Zubeldiari omenaldia. Ikus 21 or.
- "Kabaret" ikuskizuna. 17:00etan Sutegiko auditorioan.
- "Irrien sukalde txokoa". 17:30ean Aginagako ludotekan.
- Gazte Eguna. Ikus 12 or.

## 20 astelehena

- Udal aurrekontuen aurkezpena Zubietan. 19:00etan Zubietako Kaxkapen.

## Azaroaren 22an asteazkena, musika kalera

Santa Zezili, musikarien egunaren harira Euskal Herriko musika eskolak plazara irtengo dira azaroaren 22an haien lanketa ezagutaraztera. Usurbilen, kalejira batekin eta Sutegin eskainiko duten kontzertuarekin ospatuko dute eguna:

### Azaroak 22, asteazkena

- 18:00 Kalejira. Zumarte Musika Eskolatik abiatuta: Trikitixa-pandero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin lagunduta eta Txaranga.
- 19:00 Sutegin: Musika Eskolako talde



Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da kalejira. Ondoren, Sutegin jarraituko du festak.

instrumentalak.

■ Sarrera: Doan.

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

## Argazki Lehiaketa Santuenean

"Udazkena" hizpide duen Argazki Lehiaketa antolatu du Santuenea Elkar-teak, 4-14 urte arteko haur eta gaztetxoentzat. Azaroaren 30era aurkeztu ahalko dira argazkiak. Informazio gehiago Santuenea Kultur Elkartearen.

## Aginagako gabonetako txokoak

Azaroaren 24ra arteko epea dago Aginagako San Praixku Guraso Elkar-teak abenduaren 22tik urtarrilaren 5era antolaturiko gabonetako txokoetan izen emateko. Argibide gehiagorako idatzi helbide honetara: [aginaga@eskolatxikiak.org](mailto:aginaga@eskolatxikiak.org)

## Datozenak

### Badator

## 19. Erle Eguna

Ate joka dugu urteko azoka gozoena, 19. Erle Eguna badator. Girotzeko, apiterapiaren inguruko hitzaldia antolatu dute azaroaren 24rako. Erle Eguna ordea, igandearrekin ospatuko da, azaroaren 26an.

### Azaroak 24, ostirala

- 19:30 Hitzaldia Potxoenean:

Apiterapia.

- Hizlaria: Angelo Jimenez, apiterapeuta.

### Azaroak 26, igandea

#### 19. Erle Eguna Frontoian:

- 09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

■ 11:00-14:00 Erakusketa (erleak, ezti, ontziratzeko prozesua...), postuetako salmenta, marrazki lehiaketa, bideoak Sutegin.

- 13:30 Erleak beraiek ekarritako sari banaketa:

- Ezti Lehiaketako irabazleak.

- Gozogintzako irabazleak.

- Marrazki lehiaketarako irabazleak.

Ezti lehiaketan irabazleak suertatzen diren eztiakin errifak salgai izango dira eta zozketa egingo da.

Antolatzailea: Erle Lagunak.

# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392  
[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com) USURBIL

**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
[urdaintzi@euskaltel.net](mailto:urdaintzi@euskaltel.net)  
943 36 72 64

**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24H)**

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



[www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)



*FINKA ADMINISTRATZAILEA*

*AHOLKULARITZA ZERBITZUA*

*INMOBILIARIA*

*ASEGURUAK*

**943 573 693**

*Baxoalde 4 behea, ORIO*



**pikabea**

**ASEGURU ARTEKARITZA  
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

**Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01**   
**[pikabea@pikabeaaseguruak.com](mailto:pikabea@pikabeaaseguruak.com)**

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



Usurbilgo Udala

# Udal aurrekontuak aurkezteko batzarrak

Azaroaren 20tik 23ra

Parte hartu eta egin zure ekarpena!

Zubieta

**20** Azaroak  
Zubieta. Kaxkape  
19:00 astelehena

Santuenea

**22** Azaroak  
Santuenea . Auzo elkartearen  
19:00 asteazkena

Kalezar

**21** Azaroak  
Kalezar. Haur eskolan  
19:00 asteartea

Aginaga

**22** Azaroak  
Aginaga. Ludotekan  
19:00 asteazkena

Txokoalde

**21** Azaroak  
Txokoalde. Erroizpe elkartearen  
19:00 asteartea

Kaxkoan

**23** Azaroak  
Kaxkoan. Potxoenean  
19:00 osteguna

